

Bigarrena.- Gaitzea

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezko diren bestelako xedapenak emateko.

Hirugarrena.- Biltzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga-Premiazko Araugintzako Dekretu hau Arabako Biltzar Nagusietara bidaliko da baliozkotu edo ezezta dezaten, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 9a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

3.053

34/2006 FORU DEKRETUA, maiatzaren 9ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez aldatu egiten da martxoaren 7ko 11/2006 Foru Dekretua, "salgaiak errepidez garraiatzeko" jardueraren errendimendu garbia zehazteko ezar daitezkeen zeinu, indize eta moduluak eguneratzen dituen.

2005eko abenduaren 1ean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen azaroaren 28ko EHA/3718/2005 Agindua. Horren bitartez, beste neurri batzuen artean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboko metodoa garatu zen 2006rako.

Agindu hori onartzeko arrazoiak bat honakoa dugu: "Salgaiak errepidez garraiatzeko" jardueraren etekinak zehazteko orduan gasolioaren prezioaren gorabeherek eragina izan dute; horren ondorioz, ekitaldiaren amaieran hasiera batean onartutako moduluak egokitu behar izan dira azken urteotan, eta tratamendu berezia eman zaio jarduera hori arautzeari, zenbatespen objektiboko zeinu, indize eta moduluei dagokienez.

Orobat, arrazoi horiek direla medio onartu zen Arabako Lurralde Historikoan martxoaren 7ko 11/2006 Foru Dekretua "salgaiak errepidez garraiatzeko" jardueraren errendimendu garbia zehazteko ezar daitezkeen zeinu, indize eta moduluak eguneratzen dituen.

2006ko otsailaren 28ko Estatuko Aldizkari Ofizialean EHA/3718/2005 Aginduaren aldaketa bat argitaratu zen, "salgaiak errepidez garraiatzeko" jarduera horren indize zuzentzaile berezia zuzentzen zuena. Horren ondorioz, egoki irizten da era berean aldatzea martxoaren 7ko 11/2006 Foru Dekretua.

Aurreko paragrafoan aipatutako indize zuzentzaile berezia zuzentzearekin nahikoa litzatekeen arren, arautegiaren barrieadura saihesteko, abenduaren 18ko 11/2001 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 22. paragrafo osoa, Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren Araudiaren testu bateratua onartzen duena, aldatuko da.

Arabako Foru Aldundiaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikuluen hirugarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, aipatutako batzordearen txostena ez da nahitaezkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena ikusi da.

Horregatik guztiagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertutako ondoren, hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra. Abenduaren 18ko 11/2001 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 22. paragrafoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren testu bateratua onartzen duena, aldatzea.

Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren Arautegiaren testu bateratua onartu zuen abenduaren 18ko 11/2001 Foru Dekretuaren I. Eranskinaren 22. atala ondoren adieraziko den moduan geratuko da idatzita, eta horrek 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du indarra:

"22. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifako "Salgaiak errepidez garraiatzea" 722. taldeko jardueraren etekin garbia honako prozedura honi jarraiki lortuko da:

1.- 1. fasea. Aldez aurretiko etekin garbia.

Aldez aurreko etekin garbia jarduerarako aurreikusi diren zeinu, indize eta moduluei dagozkien zenbatekoen batura izango da. Zeinu, indize eta moduluen zenbatekoa kalkulatzeko, beraien unitate

Segunda.- Habilitación.

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente disposición general.

Tercera.- Remisión a Juntas Generales.

Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, 9 de mayo de 2006.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA

Decretos Forales del Consejo de Diputados

3.053

DECRETO FORAL 34/2006, del Consejo de Diputados de 9 de mayo, que modifica el Decreto Foral 11/2006, de 7 de marzo, de actualización de los signos, índices o módulos aplicables para determinar el rendimiento neto de la actividad de "Transporte de mercancías por carretera".

En fecha 1 de diciembre de 2005, en el Boletín Oficial del Estado se procedió a la publicación de la Orden EHA/3718/2005, de 28 de noviembre, por la que, entre otras medidas, se desarrolla para el año 2006 el método de estimación objetiva del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Entre los motivos determinantes de la aprobación de la citada Orden se encuentra la incidencia de las oscilaciones del precio del gasóleo en la determinación de los rendimientos de la actividad de "Transporte de mercancías por carretera" y, como consecuencia de ello, la necesidad del reajuste, al final del ejercicio, de los módulos inicialmente aprobados y el tratamiento especial a la regulación de esta actividad en el régimen de signos, índices o módulos de estimación objetiva.

Por estos mismos motivos, en el Territorio Histórico de Álava, se aprobó el Decreto Foral 11/2006, de 7 de marzo, de actualización de los signos, índices o módulos aplicables a la determinación del rendimiento neto de la actividad de "Transporte de mercancías por carretera".

Como consecuencia de la publicación en el Boletín Oficial del Estado de 28 de febrero de 2006, de una modificación de la Orden EHA/3718/2005, por la que se procede a rectificar el índice corrector especial de la citada actividad de "Transporte de mercancías por carretera", se considera oportuno modificar el Decreto Foral 11/2006, de 7 de marzo, en el mismo sentido.

Aunque sólo sea necesario rectificar ese índice corrector especial al que se ha hecho referencia en el párrafo anterior, para evitar la dispersión normativa, se procede a modificar en su integridad el apartado 22 del Anexo I del Decreto Foral 11/2001, de 18 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Según lo previsto en el párrafo tercero del artículo 3 del Reglamento Orgánico de la Comisión Consultiva de la Administración Foral de Álava, no es preceptivo el informe de la citada Comisión.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

Artículo Único. Modificación del apartado 22 del Anexo I del Decreto Foral 11/2001, de 18 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Con efectos de 1 de enero de 2006, el apartado 22 del Anexo I del Decreto Foral 11/2001, de 18 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, quedará redactado de la siguiente forma:

"22. El rendimiento neto correspondiente a la actividad de "Transporte de mercancías por carretera", grupo 722 de la Tarifa del Impuesto sobre Actividades Económicas, se obtendrá aplicando el procedimiento establecido a continuación:

1.- Fase 1. Rendimiento neto previo.

El rendimiento neto previo será la suma de las cuantías correspondientes a los signos, índices o módulos previstos para la actividad. La cuantía de los signos, índices o módulos, a su vez, se calculará

bakoitzari esleitutako zenbatekoa jardueran erabilitako edo instalatutako unitate bakoitzarekin biderkatu beharko da. Zenbaki hori zenbaki osoa ez denean, bi hamartarrekin adierazi beharko da.

Zeinu, indize eta moduluetak unitate kopurua zehazterakoan, kontuan hartuko dira Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren Arautegia onartu zuen abenduaren 18ko 111/2001 Foru Dekretuaren I. eranskinekiko "DEFINIZIOAK" atalean ezarritako arauak.

2.- 2. fasea. Murriztutako etekin garbia.

Aldez aurretiko etekin garbia, inbertitzeko pizgarrien zenbatekoa adina murriztuko da, ondoren zehazten den bezala, eta modu horretan murriztutako etekin garbia lortuko da.

Inbertsiorako pizgarriengatik murrizketa:

Osagaien funtzionamenduaren, erabileraren edo zaharkitzearen ondorioz, elementuek galdutako balioaren zenbatekoak kengarriak izango dira ibilgetu material nahiz inmaterialaren amortizazio kontzeptuan.

Balio-galtzea benetakotzat hartuko da, ibilgetuaren ondare elementua erosteko prezioari edo ekoizteko kostuari honako koefizienterik bat ezartzean lortzen den emaitza denean:

1.- Gehienezko amortizazio linealaren koefizientea.

2.- Gutxienezko amortizazio linealaren koefizientea, amortizazioaren gehienezko epealditik datorrena.

3.- Amortizazio linealaren beste edozein koefiziente, aurretik aipatutako koefizienteen bitartean dagoena.

Hona hemen amortizazioaren taula:

TALDEA	DESKRIBAPENA	GEHIENEZKO KOE.F. LINEALA EHUNEKOAK	GEHIEN. EPEALDIA URTEAK
1	ERAIKINAK ETA BESTE ERAIKUNTZA BATZUK	5	40
2	TRESNAK, LANABESAK, INFORMAZIOAREN TRATAMENDURAKO EKIPOAK ETA INFORMATIKA-SISTEMAK ETA -PROGRAMAK	40	5
3	GARRAIORAKO ELEMENTUAK ETA GAINERAKO IBILGETU MATERIALA	25	8
4	IBILGETU INMATERIALA	15	10

Amortizagarria izango da eroste prezioa edo ekoizte kostua, hondar balioa kenduta.

Eraikinetan ez da amortizagarria izango luraren balioari dagokion eroste balioaren zatia. Luraren balioa zein den ez dakigunean, balio hori kalkulatzeko, eroste prezioa hainbanatu egingo da lurra erosi zen urteko luraren katastro balioaren eta eraikitzearen katastro balioaren artean.

Amortizazioa elementuka egingo da, banan-banan. Hala ere, amortizazio taulan talde berean agertzen diren ondare elementuak baldin badira, taldea osorik amortizatu ahal izango da, baldin eta momentu orotan ondare elementu bakoitzari dagokion amortizazioa jakiteko aukera badago.

Ibilgetu materialaren ondare elementuak, funtzionatzeko moduan jartzen diren unetik hasiko dira amortizatzen; eta ibilgetu inmaterialarenak, berriz, sarrerak sortzeko moduan dauden unetik.

Bitzita erabilgarria ezingo da izan amortizazio taulan adierazitako amortizazio epea baino luzeagoa.

Ibilgetu materialeko ondare elementu erabiliak erosten badira, ondasunaren eroste prezioa hartuko da kontuan amortizazioa kalkulatzeko. Gehienezko muga, gehienezko amortizazio linealaren koefizientea erabiliz lortutako emaitza bider bi izango da.

Ondasunak erosteko edo berritzeko aukerarekin lagatzen badira, eta bata zein bestea egingo dela zalantzarik ez badago, ondasunak lagatzen dituenarentzat kengarria izango da honela kalkulatzeko amortizazio kuota dagokien kopurua: amortizazio taulan adierazitako koefizienteak ondasunaren eroste prezioari edo ekoizte kostuari aplikatzean lortutako emaitza.

Ekitaldian zergadunaren esku utzitako ibilgetu materialeko elementu berriak, elementu bakoitzak 601,01 euro baino gutxiago balio duenean, nahi bezala amortizatu ahal izango dira. Hala ere, urtean gehienez ere 3.005,06 euro amortizatu ahal izango dira.

multiplicando la cantidad asignada a cada unidad de ellos por el número de unidades del mismo empleadas, utilizadas o instaladas en la actividad. Cuando este número no sea un número entero se expresará con dos decimales.

En la cuantificación del número de unidades de los distintos signos, índices o módulos se tendrán en cuenta las reglas establecidas en el apartado de "DEFINICIONES" del Anexo I al Decreto Foral 111/2001, de 18 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

2.- Fase 2. Rendimiento neto minorado.

El rendimiento neto previo se minorará en el importe de los incentivos a la inversión, en la forma que se establece a continuación, dando lugar al rendimiento neto minorado.

Minoración por incentivos a la inversión:

Serán deducibles las cantidades que, en concepto de amortización del inmovilizado, material o inmaterial, correspondan a la depreciación efectiva que sufran los distintos elementos por funcionamiento, uso, disfrute u obsolescencia.

Se considerará que la depreciación es efectiva cuando sea el resultado de aplicar al precio de adquisición o coste de producción del elemento patrimonial del inmovilizado alguno de los siguientes coeficientes:

1º.- El coeficiente de amortización lineal máximo.

2º.- El coeficiente de amortización lineal mínimo que se deriva del período máximo de amortización.

3º.- Cualquier otro coeficiente de amortización lineal comprendido entre los dos anteriormente mencionados.

La tabla de amortización es la siguiente:

GRUPO	DESCRIPCIÓN	COEFICIENTE LINEAL MÁX. PORCENTAJE	PERIODO MÁX. AÑOS
1	EDIFICIOS Y OTRAS CONSTRUCCIONES	5	40
2	ÚTILES, HERRAMIENTAS, EQUIPOS PARA EL TRATAMIENTO DE LA INFORMACIÓN Y SISTEMAS Y PROGRAMAS INFORMÁTICOS	40	5
3	ELEMENTOS DE TRANSPORTE Y RESTO DE INMOVILIZADO MATERIAL	25	8
4	INMOVILIZADO INMATERIAL	15	10

Será amortizable el precio de adquisición o coste de producción, excluido, en su caso, el valor residual.

En las edificaciones no será amortizable la parte del precio de adquisición correspondiente al valor del suelo, el cual, cuando no se conozca, se calculará prorrateando el precio de adquisición entre los valores catastrales del suelo y de la construcción en el año de adquisición.

La amortización se practicará elemento por elemento, si bien cuando se trate de elementos patrimoniales integrados en el mismo grupo de la tabla de amortización, la amortización podrá practicarse sobre el conjunto de ellos, siempre que en todo momento pueda conocerse la parte de la amortización correspondiente a cada elemento patrimonial.

Los elementos patrimoniales del inmovilizado material empezarán a amortizarse desde su puesta en condiciones de funcionamiento y los del inmovilizado inmaterial desde el momento en que estén en condiciones de producir ingresos.

La vida útil no podrá exceder del período máximo de amortización establecido en la tabla de amortización.

En el supuesto de elementos patrimoniales del inmovilizado material que se adquieran usados, el cálculo de la amortización se efectuará sobre el precio de adquisición, hasta el límite resultante de multiplicar por dos la cantidad derivada de aplicar el coeficiente de amortización lineal máximo.

En el supuesto de cesión de uso de bienes con opción de compra o renovación, cuando por las condiciones económicas de la operación no existan dudas razonables de que se ejercitará una u otra opción, será deducible para el cesionario, en concepto de amortización, un importe equivalente a las cuotas de amortización que corresponderían a los citados bienes, aplicando los coeficientes previstos en la tabla de amortización, sobre el precio de adquisición o coste de producción del bien.

Los elementos del inmovilizado material nuevos, puestos a disposición del contribuyente en el ejercicio, cuyo valor unitario no exceda de 601,01 euros, podrán amortizarse libremente con el límite anual máximo, por todos ellos, de 3.005,06 euros.

3.- 3. fasea. Moduluen etekin garbia.

Moduluen etekin garbia, hala dagokionean, murriztutako etekin garbiari ondoren adierazten diren indize zuzentzaileak aplikatuz lortuko da.

Indize zuzentzaileak honako hurrenkerari jarraiki aplikatuko zaizkio murriztutako etekin garbiari, edo, hala badagokio, indizeak aplikatu eta gero lortzen den zuzenketari:

a) Indize zuzentzaile berezia.

Oro har, 0,80 indizea ezarriko da titularrak ibilgailu bakarra duenean.

0,90 indizea ezarriko da jarduerak traktokamioiak eskatzen dituzenean eta titularrak erdi-atoiak ez duenean. Jarduerak traktokamioi bakarra eskatzen duenean, eta atoi-erdiak behar ez duenean, 0,75 indizea ezarriko da.

b) Aldi baterako indize zuzentzailea.

Jarduera aldi jakin baterako bada, honekin batera dagoen taulako indizea aplikatuko da, iraupenaren arabera dagokiona.

Aldi baterako jarduerak urteko zenbait egunetan egiten direnak dira, jarraian edo txandaka, betiere, urtean guztira 180 egun baino gehiago ez badira.

ALDIAREN IRAUPENA	INDIZEA
60 EGUN ARTE	1,50
61 EGUNETIK 120 EGUNERA ARTE	1,35
121 EGUNETIK 180 EGUNERA ARTE	1,25

c) Soberakinaren indize zuzentzailea.

Murriztutako etekin garbia, edo hala dagokionean, aurretik aipatutako indizeak aplikatzean lortutako zuzendutako etekin garbia, 33.640,86 euro baino gehiago denean, zenbateko horren gaineko soberakinari 1,30 indizea ezarriko zaio.

d) Jarduera hasteagatik indize zuzentzailea:

Jarraian aipatzen diren indize zuzentzaileak erabiltzeko eskubidea izango du honako egoera hauei egokitzen zaien jardueraren bati ekiten dion zergadunak:

- 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera hasia.
- Aldi baterako jarduera ez izatea.
- Lehenago beste titulartasun edo kalifikazio baten pean egin ez izana.

- Soilik jarduera horretan aritzeko lokala edo establezimendua izatea, eta zergadunak beste ekonomia jardueraren batean diharduzenean, ekonomia jarduera horretatik bananduta egotea.

d) letran zehaztutako indize zuzentzaileak:

Lehenengo ekitaldia: 0,80 indizea.
Bigarren ekitaldia: 0,90 indizea."

AZKEN XEDAPENA

Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunear sartuko da indarrean Foru Arau hau, eta egun horretatik aurrera izango ditu ondorioak bere artikuluetan xedatutakoak.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 9a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Iragarkiak

SUSTAPEN EKONOMIKO ETA BERRIKUNTZAREN
KUDEAKETA SAILA

2.857

Esleipenaren iragarkia

1.- ERAKUNDE ESLEITZAILEA

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomiko eta Berrikuntzaren Kudeaketa Saila.

b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Ekonomiako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua.

c) Espediente zenbakia: 1131/06

2.- KONTRATUAREN HELBURUA

a) Kontratu mota: laguntza teknikoa

3.- Fase 3. Rendimiento neto de módulos.

Sobre el rendimiento neto minorado se aplicarán, cuando corresponda, los índices correctores que se establecen a continuación, obteniéndose el rendimiento neto de módulos.

Los índices correctores se aplicarán según el orden en que aparecen enumerados a continuación, sobre el rendimiento neto minorado o, en su caso, sobre el rectificado por aplicación de los mismos:

a) Índice corrector especial.

Con carácter general, se aplicará el índice 0,80 cuando el titular disponga de un único vehículo.

Se aplicará el índice 0,90 cuando la actividad se realice con tractocamiones y el titular carezca de semirremolques. Cuando la actividad se desarrolle con un único tractocamión y sin semirremolques, se aplicará, exclusivamente, el índice 0,75.

b) Índice corrector de temporada.

Cuando la actividad tenga la consideración de actividad de temporada, se aplicará el índice de la tabla adjunta que corresponda en función de la duración de la temporada.

Tendrán la consideración de actividades de temporada las que habitualmente sólo se desarrollen durante ciertos días del año, continuos o alternos, siempre que el total no exceda de 180 días por año.

DURACIÓN DE LA TEMPORADA	ÍNDICE
HASTA 60 DÍAS	1,50
DE 61 A 120 DÍAS	1,35
DE 121 A 180 DÍAS	1,25

c) Índice corrector de exceso.

Cuando el rendimiento neto minorado o, en su caso, rectificado por aplicación de los índices anteriores, resulte superior a la cantidad de 33.640,86 euros, al exceso sobre dicha cuantía se le aplicará el índice 1,30.

d) Índice corrector por el inicio de la actividad:

El contribuyente que inicie la actividad concurriendo las siguientes circunstancias tendrá derecho a aplicar los índices correctores que se establecen a continuación:

- Que se inicie a partir del 1 de enero de 2005.
- Que no se trate de actividad de temporada.
- Que no se haya ejercido anteriormente bajo otra titularidad o calificación.

- Que se realice en local o establecimiento dedicado exclusivamente a dicha actividad, con total separación del resto de actividades económicas que, en su caso, pudiera realizar el contribuyente.

Índices correctores a que se refiere esta letra d):

Ejercicio primero: índice 0,80.
Ejercicio segundo: índice 0,90."

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, y surtirá efectos según lo dispuesto en su articulado.

Vitoria-Gasteiz, 9 de mayo de 2006.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Anuncios

DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA
Y GESTIÓN DE LA INNOVACIÓN

2.857

Anuncio de adjudicación

1.- ENTIDAD ADJUDICADORA

a) Organismo: Diputación Foral de Álava. Departamento de Promoción Económica y Gestión de la Innovación

b) Dependencia que tramita el expediente: Servicio de Secretaría Técnica de Economía.

c) Número de expediente: 1131/06

2.- OBJETO DEL CONTRATO

a) Tipo de contrato: asistencia técnica.